



EBAZPENA, 2020ko urriaren 20koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduran kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda programazio didaktikoa epean ez entregatzeagatik (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu zen)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deialdia egin zen, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko uztailaren 29ko Aginduaren (EHAA, 2020ko abuztuaren 17koa) lehenengo ebazpen-zatiaren d) idatz-zatiaren arabera, aiptautako hautaketa-prozeduretako epeei eta denbora-erreferentziei buruzkoa, 2020ko irailaren 30etik urriaren 9ra arte, biak barne, txanda libreko eta desgaitasunagatiko erreserbarako txandetako izangai onartuek, bai eta baztertuta daudenek ere (baldin eta gora jotzeko errekurtoa jarri badute eta ebatzi gabe badago), programazio didaktikoa entregatu behar zuten.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren 7.3.1 oinarriaren zazpigarren paragrafoaren arabera, aipatutako programazioa epe barruan entregatu ez duten pertsonak galdu egingo dute hautaketa-prozeduran parte hartzen jarraitzeko eskubidea, eta baztertu egingo dira.

Programazio didaktikoa aurkeztu ez duten izangaiak ezarritako epean badirela egiaztatu ondoren,

EBATZI DUT

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduran, kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda programazio didaktikoa epean ez entregatzeagatik (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteari begira, Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Emaizak» – «Programazio didaktikoa».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> – «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Oposizio-aldia» – «Programazio didaktikoa».

3. artikulua.- Izangaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Ebazpen honen aurka, bost laneguneko epean, argitara eman den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 20a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO .